



## KONGRESUAN PARTE-HARTZEKO OINARRIAK

Gizarte esku-hartzearen parte garen pertsona guztiak berriz batzeko prestatzen gauden kongresua aurkezten dizuegu. Helburua gizarte esku-hartzea berpentsatzea da. Gure eremua osatzen duten kontzeptuei (justizia soziala, pobreziaren aurkako borroka, bazterketa, inklusioa) esanahi berria ematea. Hausarketa hau ikuspegi feminista batetik abiatuko da; gure begirada, estrategia, metodologiak eta helburuen ikuspegi transformatzaile batetik.

Proiektu honetan pertsona profesionalak baina ere akonpainatzen ditugun pertsonak batu nahi ditugu, beraien praktika feministen bidez sortutako hausnarketak elkarbanatzeko. Desberdin egiten duzuen hori identifikatzeko, zuen egitea egite-ona bihurtzen duten detaile horiek transmititzeko. Ekarpen bakoitza bakarra eta ezinbestekoa da. Guztien artean jakintza eraikitzen dugu.

Gizarte esku-hartzea eraldatzea bilatzen duten galdera eta bilaketak elkarbanatzera animatzen zaituztegu. Justuagoa den gizartearen eraikuntzan feminismoa ere gure lana hobetzeko ezinbesteko gakoa dela jakinik.

Feminista den gizarte esku-hartzea eraikitzeko profesionalak eta akonpainatzen ditugun pertsonak bizitzan zehar eskuratu ditugun ahalmenak, jakintzak, estrategiak, metodologiak eta tresnetan sakondu eta konpartitu behar ditugu.

## ZUEK GUZTIEI ZUZENTZEN GARA.

**Animatu! Zuen ideiei forma eman eta elkarbanatu.**

### ¿NOLA?

Komunikazio, poster, elkarrizketa, dinamika edota adierazpenerako beste edozein formatoren bitartez, betiere ditugun baliabideei eta ekarpen bakoitzerako adostu den denborara egokituz. Garrantsizua iruditzen zaigu hartuko dugun espazioan gustura sentitzea eta gure ahotsa, guk erabaki bezala entzutea. Zuen proposamena bota eta posible egin ahal dugun ikusiko dugu.

Laburpenak word formatuan bidaliko dira eta 250-300 hitzeko luzera izango dute.

### ¿ZEINTZUK DIRA BALDINTZAK?

Ikuspuntu feminista batetik abiatutako hitzaldia izan behar da, dibertsitateak (jatorria, identitatea, kultura, gorputza eta sexualitatea, funtzioak, adina...) kontuan hartzen dituen eta begirada interseksionala dutenak, biolentzia matxista eta bestelako zapalkuntzeran arreta jarritz.

Gizarte esku hartzearekin lotuta egon behar dira eta praktikan eragina izan.

**NORA DEITU EDO IDATZI:** [eraikizkolektiboa@gmail.com](mailto:eraikizkolektiboa@gmail.com)

Tlfn. 657 73 60 23



## KONGRESUAN PARTE HARTU

Gizarte esku-hartzea osatzen duten pertsona guztiak parte hartu dezakete:

- Pertsona profesionalak modu indibidual edo taldean
- Akonpainatuak izan diren pertsonak modu indibidual edo taldean
- Batak besteen konpainian

Ikasleak ere parte hartzeko espazio bat izango dute. Kongresua gauzatzen den eguneetan zehar ikusgai egongo den posterren bidez.

Kongresua irauten duen hiru egunetako baten parte hartu daiteke (hurrengo orrialdeetan zehatz-mehatz azalduko dira erabaki daitezkeen gaiak, formaoak, denborak..)

- 28 an. Hausnarketarako gunea: akonpainamendutik, jakintzen transferentziara.
- 29 an. Entzuketarako gunea: Esku hartze asistentzialetik errekonozimendu existentzialera.
- 30 an. Gorputzak eta esperientziak: gorputz eta sentzumenen bitatezko enpoderamendua.

Adierazi dugun bezala parte hartzea adostutako denboretara eta ditugun baliabide teknikoetara egokitu behar da, baina metodologia pertsona parte-hartzaileak aukeratuko dute.

Data garrantzitsuak:

- Proposamena eta laburpenak bidaltzeko azken eguna (profesionalak eta akonpainatuak izan diren pertsonak): **Azaroak 10**
- Posterren laburpenak bidaltzeko azken eguna (ikasleak): **Azaroak 15**
- Kongresuko hiru egun desberdinetara entzule bezala izena emateko aldia: **Azaroak 1-azaroak 25**

Parte hartzera animatzen dizugu. Deituiguzu edota idatzi iezaguzu eta kontaguzuzu:

- Eguna eta gaia.
- Bakarka edo taldean egingo duzun.
- Parte hartzea gustatuko litzaizun formatua.

Guk hurrengo informazioa emango dizugu:

- Proposamen eta laburpenak aurkezteko epeak.
- Kongresuan parte hartzeko izango dugun edo duzuen denbora.
- Zure espoziziorako baliagarriak izan daitezkeen laguntza eta baliabideak.



**KONGRESAREN DESKRIBAPENA EGUN DESBERDINETAN PARTE HARTZEKO:**

**28 EGUNA: Akonpainamendutik jakiteen transferentziara. Hausnarketarako gunea.**

**1. ¿Nortzuk parte hartu dezakete?:** Feminismotik esku-hartzen duten profesionalak: beraien praktika eta hausnarketaren bitartez ekarpena egiten dutenak, programa konkretu batetik edota lan egiten duten entitateetatik, betiere feminismoarekin konprometituak, modu indibidual edo taldean. Profesionalak diren pertsonak eta akonpainamendua behar izan duten pertsonak elkarrekin, ideiak, esperientziak eta proposamenak elkarbanatzen.

Zuen hausnarketak eta praktika laburtzen duten komunikazioen bidez azalpen bat burutzea proposatzen dizuegu. Beste modu batez komunikatzen guztorago sentitzen bazarete, posible egingo dugu ere.

Parte-hartzaile bakoitzak **20 minutu** izango ditu bere aurkezpenerako.

**2. ¿Zertaz? Gai hauen inguruan egin dezakezue aurkezpena:**

**A1 Etika eta pedagogia feminista: ikuspuntu, metodologiak, estrategiak eta feminista den esku-hartze baterako tresnak.**

- Intersekzioalitatea
- Emakumen giza eskubide
- Zainketarako etika
- Bizitzaren iraungarritasuna
- Dekolonizazioa
- Besterik...

**A2 Gizarteratzea**

A/ Bazterketa larria	B/ Lana eta enplegua	C/ Parte hartzea eta hiritartasuna
----------------------	----------------------	------------------------------------

**A3 Genero identitateen gizarteratze prozesuak: adingabeak, emakumeak, gizonak, familiak eta bestelako harremanak.**

- **Adingabeak:** babesgabetasun egoeran, zaurgarritasun egoeran, absentismoa, kontzumoan eta joera arriskutsuen prebentzioa, biolentzien prebentzioa, laguntza eskolarra eta denbora libre, dibertsitatea.
- **Emakumeak:** Zaurgarritasun egoeran eta bazterketa arriskuan dauden emakumeekin esku-hartzea, indarkeri matxistak, monomarentalitatea, heziketarako laguntza.
- **Gizonak:** Egungo gizarte esku-hartzea berpentzatu eta esanahi berria eman.
- **Familia:** zaurgarritasun egoeran dauden familiekin esku-hartu, seme-gurasoen arteko harremana bideratu, elkarguneak, ama, aita eta tutorentzako eskolak.
- **Beste harremanak:** indarkeria matxistak sahiestu, esku-hartzea eta akonpainamendua.



**29 Eguna: Esku hartze asistentzialetik errekonizimendu existentzialera.  
Entzuketarako gunea.**

**1. ¿Nortzuk parte-hartu dezakezue?:** Akonpainatzen ditugun emakumeek bizi duten emantzipaziorako bidez hitz egitea, zeharkatzen dituzten biolentziaz, erresistentziataz eta indarrez hitz egiten duten emakume profesionalak. Balio zaiguna eta balio ez zaiguna ere konpartitu, aldatu beharrekoa eta adoretu beharrekoa ere. Guztiak “guk” gara.

**2. ¿Zertaz? Gai honen inguruan egin dezakezue aurkezpena:** zeharkatzen gaituzten biolentziak.

**3. ¿Nola egingo dugu?**

Rol, esperientzia eta jatorri desberdinak ditugun pertsonak bizi izandako biolentzia matxistak, erresistentziak eta erresilientzia-feministen inguruko esperientziak konpartituko dituzten elkarrizketen bidez.

Lehenengo pertsonan hitz egingo dute:

- Modu zuzenean edo zeharkako biolentzien inguruko ezaguera partekatzen dituzten emakume profesionalak.
- Emantzipaziorako prozesuan akonpainatu ditugun pertsonak.

Bakarka edo konpainian parte hartu daiteke: bakarrizketa, gutun, abesti edo poesiaren bidez, edota bi pertsona edo gehiagoren arteko elkarrizketaren bidez. Inor ez da bakarrk egongo.

Edozein formatu da baliodun, beti ere ditugun baliabideei eta ekarpen bakoitzerako adostu den denborara egokituz.

Parte-hartzaile bakoitzak **20 minutu** izango ditu bere aurkezpenerako.

Hau zure espazioa bada: parte-hartzeko fitxa bete edo deitueguzu edo bidalieguzu mezu bat lehen zure ideiei forma emateko laguntza behar baduzu.

**NORA DEITU EDO IDATZI:**

eraikizkolektiboa@gmail.com

Tlfn. 657 73 60 23

2



**30 Eguna: Gorputzak eta esperientziak. Gorputz eta sentzumenen bidezko empoderamendua.**

**1. ¿Nortzuk parte hartu dezakezue?:**

Akonpainatzen diugun pertsoneri eta empoderamendua gauzatzeko, Gizarte esku-hartzea gorputza eta sentzumenak kontuan hartzen diren diziplinak tresna eramaile eta sostengu bezala erabiltzen duten profesional eta entitateei zuzendutako espazioa. Beti ere feminismitik egindako akonpainamenduak.

**2. ¿Zertaz? Gai honen inguruan egin dezakezue aurkezpena:**

Gorputzak eta sentzumenak. Gorputzak eta sentzumenak, kreatibitatea eta adierazpenarekin batzen dituzten ekintza, proiektu eta metodologiak, emantzipazio prozesu pertsonalak mesedetzeko, ikusgarri egiteko, empoderamendu kolektiborako, emakume, pertsona eta gorpuntzen balioesterako.

**3. ¿Nola egingo dugu?**

Gorputza eta sentzumenak bide eta protagonista bezala hartzen duten ekintza desberdinen bidez: mugimendua, poesia, narrazioa, dantza, antzerkia edo dramatizazioa, mimoa edo kontatzen besterik ez. Bizi eta eusten gaituen gorputzetik sortu eta adierazti. Ere ikus-entzunekoen bidez egin dezakezue. Helburua zuen esperientzia, proiektu, metodologia eta estrategiak partekatzea eta ezagutzera ematea da.

**20 eta 40 minutu bitartean izango duituzue, proposatzen duzuen ekintzaren formatoaren arabera.**



Gorputza, konkistarako lurralde bezala, borrokarako lurralde bezala, bakerako lurralde bezala.

Animatu zaitetz eta deituiguzu! Sortu dezagun guztien artean femiista den esku-hartze eredu bat.

Aukeratu gaia, eguna eta partekatze modua. Zeure buruarekin edo taldean.

Deitu edo idatzi ere zure proposamenari itxura emateko laguntza behar baduzu.

Argi badaukazu inskripzio fitxa bete eta bezainlaster bidali. Zurekin kontaktan jarriko gara dena prestatzeko.

Kontaktua errepikatzen dugu:

[eraikizkolektiboa@gmail.com](mailto:eraikizkolektiboa@gmail.com) Tf. 657 73 60 23